

EUSKAL HERRIAN LITERATURA BELTZA SUSTATZEKO

(H)ILBELTZA BEKA

2020 urteko dirulaguntzaren oinarriak

Lehendabizikoa. Dirulaguntzaren xedea

Baztango Udalak, (H)ilbeltza elkarte eta Txalaparta argitaletxearen laguntzarekin, euskal literatura beltza hedatu eta munduko literatura beltza euskaratzeko asmoz, (H)ilbeltza beka plazaratzen du urtero.

Deialdi honen helburua Massimo Carlottoaren *Arrivederci amore, ciao* eleberri beltza itzultzea da. Horretarako, parte-hartzaileek Carlottoaren aipatutako eleberriaren lagin bat itzuliko dute, zehazki 93. orrialdetik 106.era.

Bigarrena. Kopurua

Deialdi honi 6.000,00 € esleituko zaizkio: 3.000,00 € udalaren 2020. urteko aurrekontu luzatuko 1 3350 4890000 Euskara-Dirulaguntzak kontu-sailaren kargura, bertze 2000,00 € (H)ilbeltza ekimenarren kargura eta 1.000,00 € Txalaparta argitaletxearen kargura.

Lagin irabazleari 3.000,00 € emanen zaizkio 2020ko maiatzean, eta idatzia akitzerakoan bertze 3.000,00 €.

Hirugarrena. Argitalpena

Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Baztango Udalaren webgunean, udaletxeko iragarki-oholean eta eskualdeko komunikabideetan iragarriko da.

Laugarrena. Aurkezteko epea eta lekua

Deialdirat aurkeztu nahi dutenek, Massimo Carlottoaren *Arrivederci amore, ciao* lagina formatu digitalean (PDF bertsioan) edo paperean aurkeztu beharko dute. Itzuli beharreko pasartea 93. orrialdetik 106rako doana da eta ilbeltza.eus edo baztan.eus webgunetatik deskargatzen ahalko dute.

Lanak aurkezteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da. Eskaria 2020ko martxoaren 6a baino lehen egin beharko da Baztango Udaleko erregistroan.

Deialdi honetan parte hartu nahi duen orok Baztango Udaleko erregistroan *(H)ilbeltza beka* izena daraman gutun-azala hertsirik aurkeztu beharko du, eta horren barnean bertze 2 gutun-azal, horiek ere hertsirik:

1. Gutun-azala, *Itzulpena* izenekoa: Bortzgarren puntuko a) dokumentua.
2. Gutun-azala *Itzultaila* izenekoa: Eskaera eta bortzgarren puntuko b) eta c) dokumentuak.

(H)ilbeltza beka dioen gutun-azal hori bertze gutun-azal batean sartu beharko da, erregistrorako behar diren datuekin, erregistrorako nahitaez izen bat eman behar baita. Erregistroa egin bezain fite, eta anonimotasuna mantentzeko, administrariak izena duen gutun-azala hautsiko du, bertze gutun-azala erregistro zenbakiarekin bakarrik heltzeko epaimahaikideei.

Posta arruntaz igortzeko aukera baliatu nahi duenak zertifikatua igorri beharko du, igorri zeneko eguneko zigiluarekin.

Epaimahaiak jasotako proiektu guztiak aztertuko ditu, eta haien arteko bat izendatuko du irabazle 2020ko ekainaren 5a baino lehen. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritziz gero, beka eman gabe uzten ahal dute epaimahaikideek. Erabakia publiko egin baino lehen, Baztango Udala paratuko da irabazlearekin harremanetan. . Ondotik, hiru hilero lanaren martxaz jakinaren gainean izanen ditu antolatzaileak eta editoreak.

Itzultzaile saridunari hurrengo (H)ilbeltza bekaren epaimahaikide izatea proposatuko zaio. (2022)

Itzulpen irabazlearen jabetza dirulaguntza jaso duen itzultzailearena izanen da. Alabaina, lan horrek ezingo du bertze inongo beka edo saririk jaso, ez laguntzaren aitzinetik ez eta ondotik ere, argitaratu osteko sariak izan ezik.

Bortzgarrena. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

Eskariarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Massimo Carlottoren *Arrivederci amore, ciao* eleberriaren lagina formatu digitalean (PDF bertsioan) edo paperezkoan.
- b) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
- c) Laguntza zein banku-kontutan jaso nahi duen eta hori eskatzailearen izenean dagoela ziurtatzen duen banku-etxearen agiria.

Aipatu agiri horiek jatorrizkoak izan behar dute, edo, bertzela, kopia konpultsatuak.

Aurkezturiko dokumentazioa osaturik ez badago, interesdunari dagokion dokumentazio osagarria hamar eguneko epean aurkeztea galdeginen zaio.

Seigarrena. Itzulpena edo proiektuaren aurkezpena

Eskatzaileak laguntza emanen zaiola jakinarazi ondotik urte bateko epean aurkeztu beharko du itzulpena; epea gainditurik ez da lanik onartuko eta udalak emandako dirulaguntza erreklamatzeko ahalko du.

Itzultzaileak bere lana entregatzen ez badu, edo itzulpen horren izaera eta kalitatea, epaimahaiaren iritziz, proiektuan azaldutakoan aldean nabarmen kaxkarragoak badira, itzultzaileak itzuli egin beharko du jasotako dirua.

Dirulaguntzaren jasotzaileak, liburua buruturik, (H)ilbeltza, euskal nobela beltzaren astean aurkeztuko du.

Zazpigarrena. Balorazio, kudeaketa eta ebazpen organoak

Aurkeztutako lanak helburu horrekin osaturiko epaimahaiak baloratuko du. Bertan Baztango Udalaren ordezkaria (Joseba Otondo), Txalaparta argitaletxearen ordezkaria (Garazi Arrula) eta (H)ilbeltza elkarteak izendatutakoa (Josu Barambones) egonen dira. Denek aurkezten ahalko dute beren ordezkaria, lan hori egitea posible ez balute.

Epaimahaia izanen da bekaren inguruko prozedura bideratuko duen organoa, eta irizpena helaraziko dio Tokiko Gobernu Batzordeari, ebazteko eskumena duen organoa baita.

Nolanahi ere, beka eman gabe utz daiteke, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako proiektuetatik bakar batek ere ez badu gutxienerako kalitate erdietsi.

Epaia apelaezina izanen da.

Zortzigarrena. Balorazio irizpideak

Aurkeztutako itzulpenean kalitatea, aberastasuna eta sorburu-testuarekiko baliokidetzaren baloratuko dira. Horrekin batean sorburu-hizkuntzatik zuzenean itzultzea baloratuko da.

Bederatzigarrena. Esleipenaren ezeztapena, betebeharrak ez betetzeagatik

Baldin eta esleipendunak ez baditu oinarri hauek eta ezarritako epeak —itzulpena aurkeztekoak edo epaimahaiari lanaren egoeraren berri ematekoak— errespetatzen, edo eskatutako agiriak ez baditu aurkezten, edo lanak ez baditu proiektuan ezarritako ezaugarriak betetzen, edo proposatutako idazlana baino aise ere kalitate gutxiagokoa bada, epaimahaiak udalaren organo eskudunari eskatzen ahalko dio laguntzaren esleipena ezeztatzeko, eta esleipendunak jasotako dirua itzuli beharko dio Baztango Udalari. Era berean, kasu horietakoren bat gertatu dela irizten badio, argitaldaria ez du lana karrikatuko.

Hamargarrena. Idazlanaren argitalpena

Itzulpena argitaratzen bada udalari 10 ale dohainik emanen zaizkio.

Txalaparta argitaletxeak argitaratuko du itzulpena; horretarako, lana eskuratzeko dagozkion egile-eskubideak negoziatuko, ordainduko eta kudeatuko ditu. Epaimahaikoek lan osoari onespina ematen dutenetik borts hilabeteko epean karrikatu beharko da liburua, eta, bertan, bekaren aipamena egingen da nahitaez.

Hamaikagarrena. Arau-hausteak eta zehapenak

Deialdian parte hartzen dutenek horri oinarri hauek onartzen dituzte, eta men egingen diete Baztango Udalak hartzen ahal dituen erabakiei. Lehiaketaren oinarriak ez betetzeak lehiakidea baztertzea ekarriko du berekin.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legeak xedatutakoak aginduko du.

Hamabigarrena. Datuen babesa

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera izango da, eta 2016/679 Erregelamendua eta maiatzaren 17ko 5/2018 Gardentasunaren, Informazio Publikorako Sarbidearen eta Gobernantza Onaren Foru Legea errespetatuko du.

Hamahirugarrena. Aplikatuko den araudia

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, aplikatuko dira.

Hamalagarrena. Ebazpena eta helegiteak

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbertez, udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabeherak

oro ebazteko. Emanen diren administrazio-ebazpenen aurka ondoko errekurtsio hauekiko bat paratzen ahal da, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

I. ERANSKINA

Parte hartzeko eskaria

Izen-abizenak:

NAN:

Telefonoa:

E-maila:

Helbidea:

Baztango Udalak Txalaparta argitaletxea eta (H)ilbeltza elkartearen laguntzarekin antolatu duen Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko *(H)ilbeltza* bekaren deialdirat aurkezten dut neure burua, horretarako, deialdiaren oinarriak eskatzen duen dokumentazioa aurkezten dut:

Baztanen, 2020ko _____ .

(Eskatzailearen sinadura)

Aurkezturiko dokumentazioa:

- a) Eskaria (I. eranskina)
- b) Itzulpen lana
- c) Nortasun agiriaren kopia
- d) Banku-etxearen agiria